


VITORIA-GASTEIZKO LURZORUEN KONTSERBAZIO PROGRAMAN NATUSFERA PLATAFORMAN DATUAK IGOTZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. [Web orrialderako sarrera](#)
2. [Natusferan erabiltzailearen erregistroa](#)
3. [Behaketak: zer dira eta nola gehitu](#)
4. [Behaketak gehitzerako orduan jarraitu beharreko pausuen laburpena](#)
5. [Norberaren behaketak kontsultatzeko](#)
6. [Edozein parte hartzailearen behaketak kontsultatzeko](#)
7. [I. ERANSKINA](#) – Behaketen atalak
8. [II. ERANSKINA](#) – Uzta motak



Con la colaboración de:



Centro de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Sarrera

Ataritik kontserbazio programetan parte hartzen duten pertsonen esperientzia hobetzeko asmoarekin darraigu eta horregatik, dokumentu hau sortu dugu Natusferara datuak igotzeko laguntza emateko tresna-gisa. Egoera aprobetxatu nahi dugu plataforma kolaboratibo hauen erabilpena bultzatzeko eta honela, zure eta gainontzeko pertsonen behaketen jarraipena gauzatzeko. Plataforma hauek kontserbazio programen datuak modu estandarizatuan biltzeko aukera ematen dute, baita hauek zabaltzeko, erreproduzitzeko eta analizatzeko aukera ere. Hauek emaitzen txostenak gauzatzeko beharrezkoak dira.

Plataforma digitalen artean, Natusfera Herritarren Zientzia Sareko hiru kontserbazio programek erabiltzen dute: Lurzoruen Kontserbazio Programak, Orkideen Kontserbazio Programak eta Gaueko Tximeleten Kontserbazio Programak. Plataforma honek datuen bilketa eta ondorengo datuen trataera errazten du. Protokolo hau Lurzoruen Kontserbazio Programako pertsona partaideentzako tresna da.

Natusferak naturaren behaketak erregistratu eta antolatzeko, beste naturalista batzuk ezagutzeko eta modu kolaboratzailean mundu naturalaren inguruan ikasteko aukera ematen du. Natusferako komunitatea modu askotako pertsonen osatzen dute, jakintza eta lanbide mota ezberdin askotarikoak. Mendizaleak, ingurumen gidariak, ehiztariak, hegazti-zaleak, onddo biltzaileak, natura gunetako teknikoak, ekologistak, ikasleak, irakasleak, arrantzaileak eta abar luze bat topatuko dugu bertan. Plataformaren helburu nagusia erabiltzaileen arteko sare handi bat sortzea izango da, eta honela, naturarekin erlazionaturiko datu-base solido bat edukitzea espero da, ezagutzen dugun naturaren eta bioaniztasunaren kontserbazioaren helburuarekin.

Natusfera estatu mailako plataformarik handiena eta aktiboena da eta honek abantaila bat du: gure behaketak unean baieztatzeko aukera ematen digu, erregistratutako erabiltzaile kopuru handia dela eta.

Jarraian lagindiutako lurzoruak plataformara igotzeko eman beharreko pausuak azalduko ditugu.

1. Web orrialderako sarrera

URL-an hurrengo helbidea sartu behar da: <https://natusfera.gbif.es/>

2. Natusferan erabiltzailearen erregistroa

Web orrialdean kontu bat sortzeko hasierako orrialdean agertzen den “Crear una cuenta” sakatu beharra dago (1. Irudian gorritz inguraturik agertzen da).



1. Irudia. Natusferako hasiera orrian kontu baten sorrera.

Orduan, pantailan inskripzioa gauzatzeko formularioa agertuko da (2. Irudia). Formulario honetan korreo elektronikoa, erabiltzailearen izena eta pasahitza eskatuko da. Atal guztiak bete ostean, “Crear una cuenta”-n sakatu beharra dago.

***ADI:** Parte hartzaileen identifikazioa errazteko, erabiltzailea erraza izatea eskatzen dugu eta gainera, kontua sortzerako orduan, guri hau bidaltzea eskertuko genizuke. Honela, datuen igoeraren kontrola errazten da.

¡Únete a Natusfera!

Registro / nombre de usuario

Solo letras y números, sin espacios

Correo

Contraseña

Confirmar contraseña

Tu zona horaria actual

Todas tus observaciones se harán en esta zona horaria a menos que especifiques lo contrario.

(GMT-10:00) Hawaii

¡Sí, hacer una licencia de mis fotos, sonidos y observaciones para que los científicos puedan usar mis datos!

Selecciona esta caja si quieres aplicar una Creative Commons Attribution-NonCommercial license a tus fotos. Puedes escoger una licencia diferente o quitar después, pero esta es la mejor licencia para compartir datos con los investigadores.

Crea una cuenta

2. Irudia. Izen-ematerako formularioa.

3. Behaketak: zer dira eta nola gehitu

Behaketak zuzenak izateko, 3. Irudian agertzen diren 5 datu garrantzitsuak bete behar dira:

1. **Nor da behatzailea.** Zu ala zure taldea. Horretarako, Natusferan kontu bat izan behar duzu. Zure kontu propioa izateko dokumentu honetako “[2. Natusferaren erabiltzailearen erregistroa](#)” joan zaitez. Edozein arazo izatekotan, Ataritik sortu ahal dizugu kontua zure korreo elektronikoa ematen badiguzu.
2. **Non behatu duzu.** Lurzoruen Kontserbazio Programaren kasuan, partzelaren izena Atarirekin batera adostutako partzelaren izena eta haren koordinatuak idatzi beharko dira.
3. **Zer behatu duzu.** Lurzoruen programaren kasuan ez dugu organismorik bilatu eta beraz ez daukagu igotzeko espezierik ezta argazki edo soinurik ere. Hala eta guztiz ere, **gure lurzoruaren neurketa igotzerako momentuan oso garrantzitsua da hura “*Lumbricus terrestris*” bezala igotzea.** Lurzoruen neurketa bat Natusferara igotzeko modua 3. irudian ikusi daiteke.
4. **Noiz behatu duzu.** Neurketa egin deneko data jarri behar da.
5. Zure behaketaren ebidentzia bat. Argazki edo soinu bat izan daiteke. Lurzoruen kasuan honek ez dauka garrantzirik.

Natusfera Observaciones Especies **Proyectos**

A ¡Crea una cue...
¡Explora...

Programa de Conservación de...
Programa de Conservación de...
Programa de Conservación de...
Todos tus proyectos

Buscar proyectos

B AÑADIR OBSERVACIONES

Programa de Conservación de Suelos de Vitoria Gasteiz

Añadir una observación a **Programa de**

C

¿Qué viste? ¿Ayuda con nombre científico? ¿Dónde estabas?

¿Fue cautiva / cultivado?

¿Cuándo lo viste?

(GMT+00:00) Europe/London

Descripción original

Mapa Satélite

Fields for Programa de Conservación de Suelos de Vitoria- Gasteiz

D

Nombre de la parcela *

T° del suelo (°C) *

T° Ambiente (°C) *

Días desde la última lluvia *

Cosecha 1 (g/planta) *

Este indicador habla de producción. Indicar resultado directo de la medición, no la nota.

3. *Irudia*. Natusferara gure lurzoruaen neurketa bat igotzeko modua. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: **A**, tresnen zutabeko “**Proyectos**”-en “**Programa de Conservación de Suelos de Vitoria-Gasteiz**” bilatu eta bertan sartu. **B**, Gorriz dagoen “**Añadir OBSERVACIONES**”-en klik egin. **C**, Gure behaketak gehitu. Gogoratu mesedez “**Lumbricus terrestris**” moduan igo behar duzula. Eta **D**, Lurzoruen Kontserbazio Programako atal espezifikoak bete. **Uztarik ez izatekotan, hau erregistratuta utzi behar da.**

4. Behaketa bat igotzeko jarraitu beharreko jarraibideen laburpena

Oso garrantzitsua da hurrengo laukizuzenean (laranzaz) azaldutako jarraibideak segitzea proiektura igotako neurketen datu-base uniforme bat eskuratzeko. Honek koordinatzaileari udalerriko lurzoruen egiazko egoeraren emaitza esanguratsuak lortzeko eta estimazio zehatzagoak eskuratzeko aukera eskainiko dio.

Behaketa baten igoera, puntuz puntu:

1. “¿Qué viste?” – **Lumbricus terrestris. BETI GEHITU BEHAR DA, mesedez.**
2. “¿Dónde estabas?” – Programako koordinatzaileekin adostutako partzelaren izena jarri, adb: Salburua – Ataria. Partzelaren inguruko zalantzak izatekotan, idatz ezazue mail bat hurrengo helbidera: cienciaciudadana@vitoria-gasteiz.org
3. Koordinatuak gradu dezimaletan igo edo lagindutako partzelaren gainean klik egin mapan.
4. “Descripción” – **Komak, lerro jauziak (enter-ak) eta tildeak ekidin** – Behatzailearen izena idatzi eta **uztarik ez edukitzekotan**, idatz ezazue. Mesedez, ekidin ezazue **KOMAK, LERRO JAUZIAK ETA TILDEAK**.
5. Derrigorrezkoak diren atal guztiak bete beharko dira laginketa bat igotzerakoan. Atal horiek landa-fitxan apuntatutako emaitzak dira besterik ez dira. Lan hau errazteko helburuarekin **igo beharreko atalen taula** bat duzue **I. ERANSKINEAN**.

***OHARRA: Zer egin uztarik gabeko edo hiru uzta baino gutxiagoko partzela bat lagintzean:**


- Cosecha (g/planta) = “-99” balioa erabili
- Tipo de cosecha = “Ninguno” jarri

Uzta moten izenak kontsultatzeko dokumentu honen amaieran II. ERANSKINA daukazu.

Ongarriaren notaren inguruko zalantza “Abonado”: Ongarriak zure partzelan duen inpaktua ezagutzeko, hurrengo prozedura jarraitu behar da: Hasierako balioa 10 izanik, ongarria ekologikoa izanez gero puntu 1 kendu beharko zaio eta ongarria ez-ekologikoa baldin bada aldiz, 2 puntu kendu beharko zaizkio. Hau da, bi ongarri ekologiko eta beste bat ez-ekologikoa erabiltzekotan, hurrengoa da burutu beharreko kalkulua: $10 - (2 \times 1) - (1 \times 2) = 6$.

5. Norberaren behaketak kontsultatzeko

Norberaren behaketak kontsultatzeko goiko barrako “Observaciones” izeneko atalean “Las Tuyas” aukeratu beharra dago (4. Irudia). Bertan sakatu ostean, zure behaketen zerrenda bat agertuko da. Orduan, “Buscar” aukeran klikatu eta “Filtros” erabiltzeko aukera dago, modu pertsonalizatuan bilaketa egiteko, kategoria (talde faunistiko edo floristikoa), proiektua, data, eta maila ezberdinetan.



4. Irudia. Erabiltzailearen behaketak kontsultatzeko pantaila.

6. Edozein parte hartzailearen behaketak kontsultatzeko

Lurzoruen Kontserbazio Programako edozein parte hartzailearen behaketak bilatzeko, “Programa de Conservación de Suelos de Vitoria-Gasteiz” aukeratzearekin nahikoa da. Bertan, parte hartzen duten pertsona guztien behaketak topatu daitezke, zureak baita ere. Gainera, datuak analizatu nahi izatekotan, haiek deskargatzeko aukera izango duzu.

I. ERANSKINA

Taula honek gure neurketak Natusferara igotzean bete beharreko informazioa dakar. Lehenengo zutabeak gehitu beharreko atalaren izena adierazten digu. Bigarren zutabeak atalak onartzen duen datu mota zehazten digu. Adibidez: Zenbakia = 1300, Testua = Tomatea kanpoan. Hirugarren zutabeak igo behar dugun datuaren informazioa eskaintzen digu: nota edo neurketa. Landa-fitxak gure neurketen nota kalkulatzeko aukera ematen digu, baina bi ataletan izan ezik (**Kutsatzaile/pestizidak eta Materia organikoa**) non **nota** igo behar den, **gainontzeko ataletan neurketak igo** behar dira, eta ez notak. Adibidez: Cosecha 1 (g/planta)-ren neurketa 1300 litzake. Hau da, batezbestekoz gure “Cosecha 1”-ko landareen pisua 1300g-koa da eta hau da igo beharreko datua, EZ NOTA. Argiago dauden kuadroak lursaileko uztari egiten die erreferentzia. Sailean uztarik landatu ez izana gerta daiteke, kasu honetan, ez litzateke beharrezkoa izango datu hauek betetzea.

Atalaren izena	Data mota	Neurketa edo Nota
Nombre de la parcela	Zenbakia	
Tª del suelo (Cº)	Zenbakia	Neurketa
Tª ambiente (Cº)	Zenbakia	Neurketa
Días desde la última lluvia	Zenbakia	Neurketa
Cosecha 1 (g/planta)	Zenbakia	Neurketa
Cosecha 2 (g/planta)	Zenbakia	Neurketa
Cosecha 3 (g/planta)	Zenbakia	Neurketa
Tipo de cosecha 1	Zenbakia	
Tipo de cosecha 2	Zenbakia	
Tipo de cosecha 3	Zenbakia	
Plagas (% de plantas sanas)	Zenbakia	Neurketa
Diversidad de cultivos (nº especies)	Zenbakia	Neurketa
Diversidad vegetal adyacente (nº estratos)	Zenbakia	Neurketa
Diversidad de macrofauna (nº tipos)	Zenbakia	Neurketa
Lombrices (nº)	Zenbakia	Neurketa
Infiltración 1 (min)	Zenbakia	Neurketa
Infiltración 2 (min)	Zenbakia	Neurketa
Infiltración 3 (min)	Zenbakia	Neurketa
Compactación 1 (cm)	Zenbakia	Neurketa
Compactación 2 (cm)	Zenbakia	Neurketa
Compactación 3 (cm)	Zenbakia	Neurketa
Acidez (pH)	Zenbakia	Neurketa
Pesticidas (uso)	Zenbakia	Nota

Materia orgánica (reacción)	Zenbakia	
Materia orgánica (color)	Zenbakia	
Materia orgánica (reacción/color)	Zenbakia	Nota
Sistema de producción LABOREO	Zenbakia	
Sistema de producción ABONADO	Zenbakia	
Sistema de producción RESTOS COSECHA	Zenbakia	
Sistema de producción SUELO DESNUDO	Zenbakia	
Sistema de producción DESTINO COSECHA	Zenbakia	
Sistema de producción FINAL	Zenbakia	
NOTA FINAL	Zenbakia	

II. ERANSKINA

FAMILIA	LABOREA	0 -	3 -	7 - 10
Solanazeoak	Tomatea, kanpoan	≤ 1030	1030 -	2380 -
	Tomatea, negutegian	≤ 2270	2270 -	5240 -
	Piperra, kanpoan	≤	300 -	700 -
	Piperra, negutegian	≤	450 -	1080 -
	Patata	≤	420 -	970 -
Lekadunak	Baba beltza	≤	31 - 73	73 - 100
	Bazkarako baba	≤	21 - 49	49 - 70
	Ilar	≤	18 - 44	44 - 60
	Indaba	≤	25 - 58	58 - 80
	Lekak, kanpoan	≤	46 - 106	106 - 155
	Lekak, negutegian	≤	75 - 175	175 - 250
Kruziferoak	Aza	≤	675 -	1550 -
	Bruselaza	≤	840 -	1960 -
	Brokolia	≤	210 -	480 - 690
	Azalore	≤	710 -	1625 -
	Koltza	≤	5 -	12 - 18
	Bazka-arbia	≤	20 - 47	47 - 67
Konposatuak	Letxuga, kanpoan	≤	140 -	315 - 455
	Letxuga, negutegian	≤	180 -	415 - 585
	Ekilorea	≤	18 - 45	45 - 63
Liliazeoak	Tipula, kanpoan	≤	110 -	250 - 350
	Tipula, negutegian	≤	120 -	280 - 400
	Porrua:	≤	56 - 128	128 - 185
Kenopodiazeoak	Erremolatxa	≤	380 -	890 -
	Zerba	≤	320 -	755 -
	Ziazerba	≤	45 - 105	105 - 150
Unbeliferoak	Azenario	≤	43 - 100	100 - 145
Kukurbitazeoa	Kuia	≤ 3750	3750 -	8500 -
Gramineoak	Garia	≤	1 - 2'4	2'4 - 3'7
	Garagarra	≤	1 - 2'3	2'3 - 3'3
	Bazka-artoa	≤	320 -	745 -
	Llollobelarra	≤	6 -	14 - 20